

Baserriko edaria



Sagarra eta sagardoa Gipuzkoako biztanleen artean oso errotuta egon diren produktuak izan dira. XX. mende erdira arte, familiaren beharrak asetzeko asmoz, Gipuzkoako baserri gehienek sagarrondoak landatzen zituzten, sagardoa zein "ursagardoa" (pitarra) egiteko.



Sagardotegiaren historia "dolare" hitzari guztiz lotua dago, sagardorearen elaborazio prozesuan erabateko garrantzia izanik. Euskal baserrien urrezko garaian (XVI. mende inguruan), dolarearen bueltan hasi ziren baserriak eraikitzen. Horren ondoren eraikitzen ziren baserriko gainerako parteak. Baserri hauei dolare-baserriak esaten zaie.

Jatorrian, sagardotegiek ez zuten egungoekin zerikusirik; egun, milaka pertsona joaten baitira sagardotegi garaian (urtarriletik apirilera) sagardotegietara, gure artean ohikoa den menua dastatzeko: bakailao tortilla, bakailao frijitua, txuleta eta postrerako intxaurreak, Tolosako teila eta zigarriloak, gazta eta irasagarra.

Nola iritsi



%100 paper birziklatua

SEGURTASUN-GOMENDIOAK:
Irteera egin aurretik ondo prestatu zure burua.
Larrialdietan: Azkar, baina zentzuz jokatu.
Larrialdiak 112
Gomendio gehiago: www.euromide.info

INFORMAZIO OROKORRA:

Zerbitzuak:


- Udaletxea: 943 692 571
- Jatetxeak:
 - Uztartza: 943 693 481
 - Urritza: 943 693 396
- Sagardotegiak:
 - Aburuza: 943 692 452
 - Zabala: 943 690 774
- Ostatuak:
 - Uztartza aterpetxea: 943 693 481
 - Zabale nekazalturismoa: 943 690 825
- Artisautza:
 - Iñaki Gorostidi: 943 693 497
 - Herri kiroltako harriak miniaturan, e.a.
- Lardigain baserria (letxugen salmenta): 635 741 849.
- Taxi zerbitzua:
 - Pello Ezeiza Iraola: 608 575 900
- Autobusak:
 - L9 linea, Villabona-Zizurkil-Aduna www.lurraldebus.com 943 000 117
- Trenak: www.renfe.com 902 320 320
- Frontoia
- Haurrentzako parkeak

Festak:

- Abuztua: Ama Birjin jaiak
- Azaroa: Kultur Astea



MENDI-IBILBIDEAK TOLOSALDEAN



ADUNA



Belkoingo itzulia 6,3 km

Interesguneak



1 Adunako plazan, frontoiaz gain, hainbat eraikin interesgarri topatu daitezke, adibidez: apaizetxea, udaletxea, Jasokundeko Amaren eliza, Txantxanea baserria eta dorretxea.

2 Basopetako atsedenekua: Herritik gertu dagoen leku lasai honetan egurrezko mahaiak, aulkiak eta ontziak garbitzeko iturria aurki daitezke baso baten gerizpean.

3 Belkoaingo trikuharria: Ikuspegi zoragarriak dituen muino txiki honetan, bertako lehen biztanleen aztarnak topa ditzakegu.

4 Sekuoioiak "bizirauten duten fosilak" direla esan ohi da, antzina talde anitza osatzeaz gain, espezie honen banaketa-eremua zabala baitzen. Egun, ordea, leku zehatzetan zokoratuta topatu daitezkeen 16 espezie inguru daude munduan.


5 Puntu honetan Urgondarraren ezarpen fazieta material terrigenoak aurkitzen dira, Euskal Herriko historia geologikoan Bortziriak (Cinco Villas) mazizoaren emertsioarekin lotura dutenak (Zizurkilgo serie beltza).



PR-Gi-119 (ibilbide laburra)

Herriko Plazatik abiatuz Zabala sagardotegiaren ondotik igaroko gara eta bidea jarraituko dugu bidegurutze batera iritsi arte. Bertan, marra hori eta zuriak jarraituz, ezkerreko aldean geratzen den bidea hartuko dugu. Hurrengo bidegurutzean "PR-Gi-119 Basopetako atsedenekua 0,4 km" dioen bidea jarraituko dugu eta Basopetako atsedenekuraino joango gara (beti bide nagusitik eta marra hori eta zuriei jarraituz).

IBILBIDEAREN PROFILA



Basopetako atsedenekura iristean, "PR-Gi-119 Mareako Gaina 0,6 km" adierazten duen bidea hartuko dugu eta Mareako Gaina muinoraino iritsiko gara. Bideari berri heldu aurretik, Belkoain mendiko gailurrera igo eta bertan kokatutako trikuharria ikusteko aukera dago. Mareako Gaina izeneko muinotik, Andoainera jaisten den gurdibidea jarraituko dugu, eta topatuko dugun lehenengo bidegurutzean eskuineko bidea hartuko dugu. Bigarren bidegurutzean, berri, biderik zabalenetik egingo dugu aurrera. Azken honek ibilbidearen hasierako puntura zuzenduko gaitu. Itzulerako bidean zehar eremu hauetan gutxi ezagutzen diren sekuoiekin egingo dugu topo. Aurrerago, Adunako interes geologikoko puntua aurkituko dugu: Urgondarren ezarpen fazieta material terrigenoak dira gune honen isla. Serie Urgondarretako materialek egun Euskal Herriko mendi nagusietariko asko osatzen dituzte.

Ondoren, ibilbidearen hasieran egindako bidean atzera egitea besterik ez zaigu geratuko, Herriko Plazara heldu arte. Honenbestez, 6,3 km dituen ibilbidea eginga izango dugu.

 Ingurumena 1 Inguru arriskutsua izan daiteke	 Ibilbidea 2 Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleak	 Desplazamenduak 2 Burdinbide eta pistetan barrena doan ibilaldia	 Esfortzua 2 Ordu 1etik 3ra bitarteko ibilaldia (gelditu gabe)	 MIDE Denbora 1h.51m.
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

 **((112))**
SOS DEJAK